

GAZTE ZUHURGABEAK

ZER DA?

Bide publikoan drogak kontsumitzen dituzten gazteei irekitzen dieten izapide administratibo zigortzailearen ordezkoko aukera.

NORTZUK DIRA HARTZAILEAK?

- Portugaleteko gazteak, 23 urtera artekoak, baldin eta bide publikoan drogak kontsumitzeagatik jardunbide administratibo edo akademiko zigortzaile baten pean badaude.
- Adin-txikiko seme-alabak dituzten familia portugaletetarrak baldin eta aurretik aipatutako egoeran badaude.
- Tokiko entitate eta elkarteak baldin eta adin-txikiko gazte kontsumitzaileekin lan egiten badute.

HELBURUAK ZEINTZUK DIRA?

- Gazteek drogei buruz dakitena informazio objektiboarekin erkatzea.
- Drogen arriskuak murrizteari buruzko informazioa helaraztea.
- Drogen arriskuak aurrezaindu eta murrizteari buruzko materiala ematea.
- Drogen inguruko esparru legezkoari buruz informazioa ematea.
- Erantzukizuna, erabakiak hartzeko ahalmena eta enpatia lantzea osasuna eta droga-mendekotasuna aurrezaintze aldera.
- Toki ireki bat eskaintzea komunikazio-bide egokia ahalbidetzeko.
- Gazteak eta Udala elkarrengana hurbilaraztea.

NOIZ?

- Zigorra jasota jardunbide administratiboa irekitzen denetik sei hilabeteko epean egin ohi ditugu jarduerak, asteburu batean, ostiral arratsaldez eta larunbat goizez, hain zuzen ere. Guztira 10 ordu dira.
- Zigorra jaso duten gazteen familiek ordubeteko elkarrizketa banakoa dute hala eskatzen badute.
- Gaztea ordezeko neurria eskatzera Udaletxera datorrenean elkarrizketa txiki bat egingo zaio.

NOLA?

Jardunbide administratiboaren hasiera: Gazteak jardunbide administratiboa irekiko zaiolako jakinarazpena jasotzen duenean agirian bertan aukera ematen zaio Udaletxera etortzeko bere zigorraren jardunbideaz mintzatzera. Halaber, azalduko zaio zer-nolako bitartekoak dituen eta nola eutsi diezaiokeen ordezeko neurriari. Gero, zertan datzan ere argituko diote.

Ordezko neurrien eskaera: Ordezko neurriari eutsi nahi badio, udalaren erregistroan (Udaletxea) eskaera egin beharko du.

Ondoren, gazteari esango diote zein asteburutan egin beharko duen ordezeko neurria. Tokia, ordutegia eta solaskidea ere jakinaraziko zaizkio. Ordezko neurria abian jartzeko, gutxienez zazpi gaztek parte hartu behar dute eta gehienez, hamabostek. Kopuru horietara iritsi ezik egitasmoa geroratuko litzateke taldea osatu arte.

Ordezko neurria: Proposamen alternatibo honetan lantegi bat dugu. Bertan informazioa ematen diegu ondoko gaien buruz: drogak, kontsumoaren ondorio eta arriskuak, legerari dagozkion kontuak eta praktika arriskutsuak.

Berebat, enpatia, erabakiak hartzeko ahalmena eta erantzukizuna sustatu nahi ditugu.

Esan gabe doa lantegia jardunbide zigortzailearen emaitza denez giro lasaian garatzen dugula komunikazioa errazte aldera. Hori dela eta, metodologia parte-hartzailea, dinamikoa, aktiboa eta malgua darabilgu gazteek informazioa jaso eta barneratzea nahi baitugu.

Beharrezkoa dugu, bestetik, prozesu osoan adin-txikikoen gurasoen oniritzia izatea. Izan ere, esku-hartzeko prozesuaren berri izateaz gain, gurasoek aukera ere badute drogamenpekotasun teknikariek eta aholkularitza juridikoarekin banako elkarrizketa izateko. Elkarrizketan, halaber, drogei loturiko legezko alderdi eta jardunbide administratibo zigortzaileari buruzko zalantzak argitzeko parada izango dute.

Behin gazteak proiektuan izan duen parte-hartzea amaitu eta balioetsita, ekingo diote espediente administratiboa artxiboratzeko neurriak hartzeari.

NON?

Portugaleteko Udalaren Drogamenpekotasun Sailak ezarritako tokian egiten da lantegia. Edozein modutan ere, interesdunari jakinaraziko zaio non izango den lantegira bertaratuko dela baieztatu bezain laster.